

JASANGARRITASUNA LANTZEN ELKARREKIN

2021-2022ko ESKOLA-KANPAINA



JASANGARRITASUNA LANTZEN ELKARREKIN

horra Iruñeko Udalaren Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzutik ikastetxeei bideratutako hezkuntza-programetako bat. Aurten eskola-eskaintza 38 jarduera eta baliabidek osatzen dute, horietatik zortzi (8) berriak direla, ikasturte honetan abiatzekoak.

Bizipenetan ahalik eta gehien oinarritutako esperientzien bitartez, ikasleak beren ingurunearen errealitatera hurbiltzea dugu helburu, ingurunea ezagutu eta disfrutatu dezaten, balioetsi eta harekin harremanarekin begirunezko eta errespetuzkoagoa eduki dezaten.

Eskolarekin batera ibiltzen jarraitu nahi dugu, haren beharrak entzun, une oro. Bizitza dar-dar dugu orain inoiz baino gehiago, eta Ingurumen Hezkuntza bizitza bere forma guztietan zaintzea da.



Zer eskaintzen dugu?

Ikasturte honetan, jarduera mota ezberdin batzuk eskainiko ditugu, gure eskaintza osasun-egoera aldakorretara egokitze aldera. Hori horrela, honako jarduera hauek eskaintzen ditugu:



ONLINEKO BALIABIDEAK

Hezkuntza-jarduerak, unitate didaktikoak eta gamifikazio-tresnak, jasangarritasunari lotuak, ingurumen-arloko sentsibilizazioa jorratzeko ikastetxean zein etxetik. Hezkuntza-etapa orotan egitekoak.




JARDUERA GIDATUAK INGURUMEN HEZKUNTZAKO MUSEOAN

Hainbat jarduera gidatu egingen dira hala Ingurumen Hezkuntzako Museoan nola kanpoaldean, gure ingurunekeo zenbait gairi heltzeko asmoz, hala nola biodibertsitatea-ri, hondakinei, kontsumoari edo klima-aldaketa-ri. Instalazioak eta jarduerak egokituta egonen dira osasun-inguruabarren arabera.

Nafarroako edozein ikastetxetako hezkuntza-etapa orotan egin daitezke.

Jarduerak astearte eta ostegunetan egingen dira, goizez, ikasturte osoan zehar.



BERRIA

Ikur honekin agertzen diren jarduerak, aurreko ikasturtearekiko jarduera berriak dira.



JARDUERA GIDATUAK: NATURA SENTITZEA

Zenbait jarduera gidatu egingen ditugu ikastetxeen ondoko berdeguneetan, naturarekiko loturak sendotzea eta gure eguneroko bizitzan ondoan ditugun berdeguneak ezagutzea xede hartuta.

Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei zuzenduta daude.


Ikasturteko udazkenean (urritik abendura) jarduerak astearte, asteazken eta ostegunetan egingen dira, goizez.

Ikasturteko udaberrian (martxotik ekainera) jarduerak asteartetik ostiralera egingen dira, goizez.



MALETA IBILTARIAK

Material ibiltariak, mailegatzeko moduko hainbat baliabidez hornituak (jokoak, neurgailuak, jarduera-fitxak eta haiek garatzeko materialak, eta abar), askotariko gaiei buruzkoak eta hezkuntza-maila desberdinetarako egokiak.



BESTE BALIABIDE BATZUK

Ecozine Zinema eta Ingurumeneko Nazioarteko Jaialdiaren Gazteen Atala, Museoa zureganatu programa eta Museoko erakusketarako bisitak dira hezkuntza-eskaintza material eta baliabide berritzaileekin osatzen duten bestelako baliabideak.

Nola egingen dugu?

Jarduera guztiak doakoak dira, aurrez erreserbatu behar dira (salbu onlineko baliabideak) eta egokituta daude kasuan kasuko hezkuntza-zikloari. Bi hizkuntzetan egiten ahal dira,

gaztelaniaz eta euskaraz.

Erreserbak 948 14 420 984 telefonoan egin daitezke.

Zer eskatzen dugu?

Parte hartzen duten ikastetxeei eskatzen diegu esperientziaren itzulketa egitea ebaluazio baten bidez, programak aurrera egin dezan haien partaidetzaren laguntzarekin.

HEZKUNTZA- ESKAINTZA ETAPAKA

04/

HEZKUNTZA-ETAPA	ESKAINTZA	JARDUERA	INGURUMENKO GAIA
HAUR- HEZKUNTZA		• Esploratzaile txikiak. • Ontzi baten gorabeherak.	• Zentzumenak basoan. • Hondakinak.
		• Gure lorategiaz jabetzen	• Biodibertsitatea eta zentzumenak .
		• Baratze-saskia.	• Eskola-baratzea.
		• Ibaia. • Nui parkean 🌳	• Ibaia eta kutsadura. • Biodibertsitatea eta zentzumenak.
		• Unitate didaktikoa: Ikasgelatik lurrera 🌳	• Eskola-baratzea.
		Zuen ingurumen-lanetik zer bait erakutsi nahi?	
LEHEN HEZKUNTZA 1. eta 2. mailak		• Uraren bidaia • Paperik onena, erabiltzen ez dena	• Ura. • Kontsumoa eta hondakinak.
		• Goazen parkera!	• Biodibertsitatea eta zentzumenak.
		• Zaraten kontrako maleta. • Baratze-saskia.	• Zarata. • Eskola-baratzea.
		• Paperezko istorioak. • Ikusi-makusi, zer ikusi? 🌳	• Biodibertsitatea, kontsumoa eta hondakinak. • Biodibertsitatea eta zentzumenak.
		• Unitate didaktikoa: Ikasgelatik lurrera 🌳	• Eskola-baratzea.
		Zuen ingurumen-lanetik zer bait erakutsi nahi?	

HEZKUNTZA-ETAPA	ESKANTZA	JARDUERA	INGURUMENeko GAIA
3. eta 4. mailak		• Zentzumenekin esploratzen. • Biodibertsitatea, sendabiderik onena.	• Zentzumenak eta Nafarroako biodibertsitatea. • Biodibertsitatea eta osasuna.
		• Goazen parkera! • Eskolatik gertu.	• Biodibertsitatea eta zentzumenak.
		• Zaraten kontrako maleta. • Baratze-saskia.	• Zarata. • Eskola-baratzea.
		• Zer jan, hura izan. • Ikusi-makusi, zer ikusi?  • Inguratzen gaituen natura 	• Elikadura osasungarria eta jasangarria. • Biodibertsitatea eta zentzumenak. • Biodibertsitatea eta zentzumenak.
		• Unitate didaktikoa: Ikasgelatik lurrera. 	• Eskola-baratzea.
		Zuen ingurumen-lanetik zerbait erakutsi nahi?	
5. eta 6. mailak		• Isuri gutxikoak. • Eta zuk, erosten al duzu zaborrik?	• Energia eta klima-aldaketa. • Kontsumoa eta hondakinak.
		• Eskolatik gertu.	• Biodibertsitatea eta zentzumenak.
		• Zaraten kontrako maleta. • Energia-maleta. • Baratze-saskia. • Uraren maleta.	• Zarata. • Energia eta klima-aldaketa. • Eskola-baratzea. • Ur-ekosistema.
		• Zarata-mapak. • Mundutik zure etxera, zure etxetik mundura. • Inguratzen gaituen natura 	• Zarata eta kutsadura akustikoa. • Zinema, kontsumoa eta hondakinak. • Biodibertsitatea eta zentzumenak.
		• Unitate didaktikoa: Ikasgelatik lurrera.  • Unitate didaktikoa: Ura, hiria eta bizitza.  • Unitate didaktiko gamifikatua: Energia xahutzearen kontrako ekintza. 	• Eskola-baratzea. • Ekosistema urtararak. • Gamifikazio-tresna energiari eta klima-aldaketari buruz.
		Zuen ingurumen-lanetik zerbait erakutsi nahi?	
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA		• Ez nirekin kontatu klima aldatzeko. • Ez ezazu mundua jan. • Zer gehitzen du zure kontsumoak?	• Klima-aldaketa eta energia-trantsizioa. • Aztarna ekologikoa. • Ehungintza eta kontsumoa.
		• Energia-trantsizioko maleta. • Uraren maleta.	• Klima-aldaketa eta energia-trantsizioa. • Ur-ekosistema.
		• Film laburrak eta geroko eztabaida.	• Era askotako gaiak.

HEZKUNTZA-ETAPA	ESKAINTZA	JARDUERA	INGURUMENEO GAIA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA		• Zarata-mapak. • Mundutik zure etxera, zure etxetik mundura.	• Zarata eta kutsadura akustikoa. • Zinema, kontsumoa eta hondakinak.
		• Unitate didaktikoa: Ura, hiria eta bizitza. • Unitate didaktikoa: Plastikoa eta ozeanoak. • Unitate didaktikoa: Ingurumen-larrialdia eta -aukera. • Unitate didaktiko gamifikatua: Energia xahutzearen kontrako ekintza.	• Ekosistema urtarak. • Plastikoa eta kutsadura. • Ingurumen-krisia. • Gamifikazio-tresna energiari eta klima-aldaketari buruz.
		Zuen ingurumen-lanetik zer bait erakutsi nahi?	
BATXILERGOA, LANBIDE HEZIKETA ETA UNIBERTSITATEA		• Zure pausoen aztarna. • Kontsumoa positiboan.	• Aztarna ekologikoa. • Ehungintza eta kontsumoa.
		• Film laburrak eta geroxo eztabaida.	• Era askotako gaiak.
		• Mundutik zure etxera, zure etxetik mundura.	• Zinema, kontsumoa eta hondakinak.
		• Unitate didaktikoa: Plastikoa eta ozeanoak. • Unitate didaktikoa: Ingurumen-larrialdia eta -aukera.	• Plastikoa eta kutsadura. • Ingurumen-krisia.
		Zuen ingurumen-lanetik zer bait erakutsi nahi?	
DIBERTSITATE FUNTZIONALEKO TALDEAK		• Sendabide naturalen lantegia. • Papera biziberritu. • Zentzumenak naturan.	• Baliabide naturalak. • Hondakinak. • Zentzumenak eta biodibertsitatea.
		• Hileroko gunea kontsumoa murriztu eta trukea egiteko	
		• Zaraten kontrako maleta. • Energia-maleta. • Baratz-saskia. • Uraren maleta.	• Zarata. • Energia eta klima-aldaketa. • Eskola-baratzia. • Ur-ekosistema.
		Zuen ingurumen-lanetik zer bait erakutsi nahi?	
ETAPA GUZTIAK		• Bisitak, erakusketa iraunkorrera eta aldi baterakoetara.	• Ingurumena eta Jasangarritasuna.



JARDUERA GIDATUAK: NATURA SENTITZEA
Iruñeko ikastetxeetako zuzendutako jarduerak.



ONLINEKO JARDUERAK



BISITA GIDATUAK MUSEOAN



MALETA IBILTARIAK



ECOZINE ZINEMA ETA INGURUMENEO JAIALDIAREN GAZTEEN ATALA



MUSEOA ZEUREGANATU



ONLINEKO BESTELAKO BALIABIDEAK



BERRIA!



BALIABIDE OSAGARRIAK



Haur Hezkuntza



JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

ESPLORATZAILE TXIKIAK

Basoko zentzumenak

Iraupena: Ordubete.

Zer lortu nahi dugu?: Naturarekiko interesa sustatzea.

Nola egingen dugu?: Naturan izaten diren soinuak, koloreak eta testurak aurkeztuko ditugu, jolasen bidez, eta zein bere jatorriarekin lotuko dugu.

OHARRA: Jarduera gomendatua Haur Hezkuntzako 2. mailatik aitzina.



Haur Hezkuntza



JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

ONTZI BATEN GORABEHERAK

Hondakinak

Iraupena: Ordubete.

Zer lortu nahi dugu?: Arreta jartzea kalean aurkitzen ditugun hondakinetan, horien jatorrian eta izan ditzaketen helmugetan.

Nola egingen dugu?: Bidaia txiki bat egingen dugu gure zentzumenak erabiliz hondakinei jarraipena egiteko eta haien ondorioak ezagutzeko.

OHARRA: Jarduera gomendatua Haur Hezkuntzako 3. mailarako.



Haur Hezkuntza



NATURA SENTITZEA
JARDUERA GIDATUA

GURE LORATEGIAZ JABETZEN

Biodibertsitatea eta zentzumenak

Iraupena: Ordubete.

Zer lortu nahi dugu?:

Naturarekiko lotura eta ingurune berde hurbilenaren ezagutza sustatzea.

Nola egingen dugu?: Ipuin baten elementuen bilaketaren bitartez, berdeguneak eskaintzen digun kolore eta testurekin jolastuko gara.

OHARRA: Jarduera gomentatua Haur Hezkuntzako 2. mailatik aitzina. Iruñeko ikastetxei zuzendua.



Haur Hezkuntza



ONLINEKO
JARDUERA

IBAIA

Ibaia eta kutsadura

Iraupena: 1-3 saio.

Ikasleak ibaiaren bizitza ezagutzera hurbiltzeko jarduera didaktikoa.

Ipuin baten bidez, hura entzunez edo irakurriz, ibaiaren inguruan bizi diren pertsonaia batzuen istorioa konstatuko dugu, eta eginkizun bat ezarri: ekaitza baten ondoren eduki duten arazoa konpontzen laguntzea.

Esteka jarduerara:
Ibaia

BERRIA!



Haur Hezkuntza



ONLINEKO
JARDUERA


NUI PARKEAN

Biodibertsitatea eta zentzumenak

Iraupena: 1-2 saio.

Jarduera didaktikoa, zentzumenen bidez ikastetxearen ondoko berdeguneak ezagutzeko, lagunez betetako ipuin bat baliatuta.

Esteka jarduerara:
Nui parkean



Lehen Hezkuntza



1. eta 2. mailak

JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

URAREN BIDAIA

Ura

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Uraren zikloa ezagutzea, elementu naturalekin zer nolako harremana duen, eta agortzen den baliabide bat dela ulertzea.

Nola eginen dugu?: Bidaia bat eginen dugu, uraren zikloaren misterioa eta uretan dagoen bizitza ezagutzeko, eta ulertuko dugu guztion artean zaindu behar dugula.



Lehen Hezkuntza



1. eta 2. mailak

JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

PAPERIK ONENA, ERABILTZEN EZ DENA

Kontsumoa eta hondakinak

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Hondakin kopurua murrizteak eta aztura jasangarriagoak hartzeak duen garrantzia ulertzea.

Nola eginen dugu?: Ginkana baten bidez hondakinen gaineko zenbait kontzeptu ikasiko ditugu.



Lehen Hezkuntza



1. eta 2. mailak

NATURA SENTITZEA
JARDUERA GIDATUA

GOAZEN PARKERA!


Biodibertsitatea
eta zentzumenak

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Naturarekiko lotura eta ingurune berde hurbilenaren ezagutza sustatzea.

Nola eginen dugu?: Ginkana baten bidez, berdeguneak osatzen dituzten elementuak ikertzera jolastuko gara

OHARRA: Iruñeko ikastetxeei zuzendua.



Lehen Hezkuntza



1. eta 2. mailak

ONLINEKO
JARDUERA

PAPEREZKO ISTORIOAK

Biodibertsitatea, kontsumoa eta hondakinak


Iraupena: saio bat.

Kontsumoan aztura jasangarriagoak hartzea zeinen garrantzitsua den ulertarazteko jarduerak didaktikoa.

Ipuin baten bidez, hura entzunez edo irakurriz, gonbita egiten zaie ikasleei ezagut dezaten zer dagoen egunerokoa eta garrantzitsua den osagai baten, hau da, paperraren atzean eta hura erantzukizunez erabil dezaten.

Esteka jarduerara:
[Paperezko istorioak](#)

BERRIA!



Lehen Hezkuntza



1. eta 2. mailak

ONLINEKO
JARDUERA

IKUSI- MAKUSI, ZER IKUSI?

Biodibertsitatea
eta zentzumenak

Iraupena: 2-3 saio.

Jarduerak didaktikoa, parkeak eta lorategiak ezagutu eta berriro ere haiekin bat egiteko.

Esteka jarduerara:
[Ikusi-makusi, zer ikusi?](#)



Lehen Hezkuntza



3. eta 4. mailak

JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

ZENTZUMENEKIN ESPLORATZEN

Zentzumenak eta Nafarroako biodibertsitatea

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Gure zentzumen zenbaitekin inguratzen gaituena esploratzen ikastea, eta naturarekin elkar bizitzearen garrantziaz jabetzea.

Nola egingen dugu?: Zentzumenekin jolasean aurkituko dugu inguruneak ematen digun sorpresa bat edo beste, eta pentsatuko dugu nola lortu naturarekin elkarbizitza hobea.



Lehen Hezkuntza



3. eta 4. mailak

JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

BIODIBERTSITATEA: SENDABIDERIK ONENA

Biodibertsitatea eta osasuna

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Gure inguruko landareek duten balio ekologikoaz ohartzea eta haiekin egin ditzakegun sendagai batzuen berri izatea.

Nola egingen dugu?: Jolas baten bidez Nafarroak berezko dituen zenbait sendabelar ezagutuko ditugu, baita horien propietateak eta haiekin egin daitezkeen produktuak ere. Amaitzeko, poltsatxo sendagarriak egingen ditugu.



Lehen Hezkuntza



3. eta 4. mailak

NATURA SENTITZEA
JARDUERA GIDATUA

GOAZEN PARKERA!

Biodibertsitatea eta zentzumenak

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Naturarekiko lotura eta ingurune berde hurbilenaren ezagutza sustatzea.

Nola eginen dugu?: Ginkana baten bidez, berdeguneak osatzen dituzten elementuak ikertzera jolastuko gara.

OHARRA: Lehen Hezkuntzako 3. mailarako. Iruñeko ikastetxeei zuzendua.



Lehen Hezkuntza



3. eta 4. mailak

NATURA SENTITZEA
JARDUERA GIDATUA

ESKOLATIK GERTU

Biodibertsitatea eta zentzumenak

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Naturarekiko lotura, ingurune berde hurbilenaren ezagutza sustatu eta horrek duen garrantziaz kontzientzia hartu, hala hartzen duen dibertsitateagatik nola bertara bisi-tan etortzen diren herritarrengatik.

Nola eginen dugu?: Jolas eta dinamiken bitartez, espazioa beste modu batean bizitzen saiatuko gara, nor bizi da han? zer papera betetzen du gudan? eta gainerako herritarrengan?

OHARRA: Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Iruñeko ikastetxeei zuzenduta.



Lehen Hezkuntza



3. eta 4. mailak

ONLINEKO
JARDUERA

ZER JAN, HURA IZAN

Elikadura osasungarria eta
jasangarria

Iraupena: saio bat.

Elikadura jasangarria eta
osasungarria balioesteko
jarduera didaktikoa; egunero
jaten ditugun elikagaien his-
toria ezagutuko dugu.

Esteka jarduerara:
[Zer jan, hura izan](#)



BERRIA!

Lehen Hezkuntza



3. eta 4. mailak

ONLINEKO
JARDUERA

IKUSI- MAKUSI, ZER IKUSI?

Natura eta zentzumenak

Iraupena: 2-3 saio.

Jarduera didaktikoa, par-
keak eta lorategiak ezagutu
eta berriro ere haiekin bat
egiteko.

Esteka jarduerara:
[Ikusi-makusi, zer ikusi?](#)

OHARRA: Lehen Hezkuntzako 3.
mailarako.



BERRIA!

Lehen Hezkuntza



3. eta 4. mailak

ONLINEKO
JARDUERA

INGURATZEN GAITUEN NATURA

Natura eta zentzumenak

Iraupena: 2-3 saio.

Jarduera didaktikoa sakon
ezagutzeko parkeak eta lo-
rategiak eta nola erabiltzen
ditugun.

Esteka jarduerara:
[Inguratzen gaituen natura](#)

OHARRA: Lehen Hezkuntzako
4. mailarako.



Lehen Hezkuntza



5. eta 6. mailak

JARDUERA GIDATUA
MUSEOAN EDO KANPOALDEAN

ISURI GUTXIKOAK

Energia eta klima-aldaketa

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Gogoeta egitea eguneroko bizitzaren esparru guztietan energiarekin dugun menpekotasunaz eta gure azturak aldatzearen garrantziaz, klima-aldaketari aurre egiteko.

Nola egingen dugu?: Zenbait proba bidez, energiaren erabileraren berri edukiko dugu, eta klima-aldaketan duen eragina ezagutuko dugu, eguneroko zenbait esparrutan.



Lehen Hezkuntza



5. eta 6. mailak

JARDUERA GIDATUA
MUSEOAN EDO KANPOALDEAN

ETA ZUK, ZABORRA EROSTEN DUZU?

Kontsumoa eta hondakinak

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Kontsumoaren eta hondakinak sortzearen arteko harremana ulertzea eta hondakin-kopurua murrizteko aukerak jorratzea.

Nola egingen dugu?: Eguneroko zenbait egoera biziko ditugu, eta haietan ikusi produktu bera kontsumituta ere sortutako hondakin kopurua desberdina dela egoeratik egoerara; hondakinak modu egokian sailkatuko ditugu eta kopurua murrizteko alternatibak bilatuko.



Lehen Hezkuntza



5. eta 6. mailak

NATURA SENTITZEA
JARDUERA GIDATUA

ESKOLATIK GERTU


Biodibertsitatea eta zentzumenak

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Naturarekiko lotura, ingurune berde hurbilenaren ezagutza sustatu eta horrek duen garrantziaz kontzientzia hartu, hala hartzen duen dibertsitateagatik nola bertara bisitan etortzen diren herritarrengatik.

Nola egingen dugu?: Jolas eta dinamiken bitartez, espazioa beste modu batean bizitzen saiatuko gara: nor bizi da han?, zer papera betetzen du gugan?, eta gainerako herritarrengan?

OHARRA: Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Iruñeko ikastetxeei zuzenduta.



Lehen Hezkuntza



5. eta 6. mailak

ONLINEKO
JARDUERA

ZARATA- MAPAK

Zarata eta kutsadura akustikoa

Iraupena: saio bat.

Zarataren eta kutsadura akustikoaren jatorria ezagutzera emateko jarduerak didaktikoa, Iruskan Iruñeko udal-bisoreak erakusten dituen zarata-mapak oinarri hartuta.

Esteka jarduerara:
[Zarata-mapak](#)



Lehen Hezkuntza



ONLINEKO
JARDUERA

5. eta 6. mailak

MUNDUTIK ZURE ETXERA, ZURE ETXETIK MUNDURA

Zinema, kontsumoa eta hondakinak

Iraupena: 1-2 saio

Sortzen ditugun hondakinei buruz gogoeta egina-
razteko jarduerak didaktikoa.

Miniaturazko zinema erabiliko dugu hezkuntza-
eta eraldatze-tresna gisa.

Esteka jarduerara:

[Mundutik zure etxera, zure etxetik mundura](#)

BERRIA!



Lehen Hezkuntza



ONLINEKO
JARDUERA

5. eta 6. mailak

INGURATZEN GAITUEN NATURA

Biodibertsitatea eta zentzumenak

Iraupena: 2-3 saio

Jarduerak didaktikoa sakon ezagutzeko parkeak
eta lorategiak eta nola erabiltzen ditugun.

Esteka jarduerara:

[Inguratzen gaituen natura](#)



Bigarren Hezkuntza



JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

EZ NIREKIN KONTATU KLIMA ALDATZEKO

Klima-aldaketa eta energia-trantsizioa

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Harremanetan jartzea klima-aldaketa eta gure egunerokoa, batez ere bizitzaren esparru ezberdinetan egiten dugun energia-erabileraz bezainbatean, eta azpimarratzea zer garrantzitsua den gure azturak aldatzea klima-aldaketari aurre egiteko.

Nola egingen dugu?: Zenbait proba bidez, energiaren erabileraren berri edukiko dugu, eta klima-aldaketan duen eragina ezagutuko, eguneroko zenbait esparrutan.



Bigarren Hezkuntza



JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

EZ EZAZU MUNDUA JAN

Aztarna ekologikoa

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Gure aztarna ekologikoaren berri izatea, eta horrek gizartean eta ingurumenean duen eragina ezagutzea.

Nola egingen dugu?: Gure aztarna ekologikoa kalkulatu ondoren, zenbait dinamikaren bitartez horrek sortzen duen inpaktua aurkituko dugu, eta egiaztatuko dugu aztarna hori gutxitzeko gaitasuna dugula, hartara mundua ez jateko.



Bigarren Hezkuntza



JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

ZER GEHITZEN DU ZURE KONTSUMOAK?

Ehungintza eta kontsumoa

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Zer eta nola erosten dugun hausnartuko dugu: kontsumitzen dugunaren jatorria, kontsumitzeko era horren ondorioak eta alternatibak.

Nola egingen dugu?: Egunero erabiltzen diren produktuen jatorria ikertuko dugu: zergatik sortzen dira hain urrun?, zer ondorio dakartza horrek? Bukatzeko, inguruan ditugun kontsumo-alternatibak aztertuko ditugu.



Bigarren Hezkuntza



ECOZINE

ECOZINE ZINEMA ETA INGURUMEN- NEKO JAIALDIA- REN GAZTEEN ATALA

Era askotako gaiak

Ecozine Zinema eta Ingurumeneko Jaialdiaren Gazteen Atala **22. orrialdean** deskribatzen da.

OHARRA: Lehentasuna dute Iruñeko ikastetxeek



Bigarren Hezkuntza



ONLINEKO
JARDUERA

ZARATA-MAPAK

Zarata eta kutsadura akustikoa

Iraupena: saio bat.

Zarataren eta kutsadura akustikoaren jatorria ezagutzera emateko jardura didaktikoa, Iruskan Iruñeko udal-bisoreak erakusten dituen zarata-mapak oinarri hartuta.

Esteka jarduerara:
[Zarata-mapak](#)



Bigarren Hezkuntza



ONLINEKO
JARDUERA

MUNDUTIK ZURE ETXERA, ZURE ETXETIK MUNDURA

Zinema, kontsumoa eta hondakinak

Iraupena: 1-2 saio.

Sortzen ditugun hondakinei buruz gogoeta egina-razteko jardura didaktikoa. Miniaturazko zinema erabiliko dugu hezkuntza-eta eraldatze-tresna gisa.

Esteka jarduerara:
[Mundutik zure etxera, zure etxetik mundura](#)



**Batxilergoa,
Lanbide
Heziketa eta
Unibertsitatea**

JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

ZURE PAUSOEN AZTARNA

Aztarna ekologikoa

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Gure aztarna ekologikoaren berri izatea, eta horrek gizartean eta ingurumenean duen eragina ezagutzea.

Nola egingen dugu?: Taldeka eta zenbait probaren bitartez, gure pausoez uzten duten aztarna ezagutuko dugu, bai eta nola jokatu behar dugun ikasi ere, aztarna hori ahalik eta txikiena izan dadin.



**Batxilergoa,
Lanbide
Heziketa eta
Unibertsitatea**

JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

KONTSUMOA POSITIBOAN

Ehungintza eta kontsumoa

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Zer eta nola erosten dugun hausnartuko dugu: kontsumitzen dugunaren jatorria, kontsumitzeko era horren ondorioak eta alternatibak.

Nola egingen dugu?: Egunero erabiltzen diren produktuen jatorria ikertuko dugu: zergatik sortzen dira hain urrun?, zer ondorio dakartza horrek? Bukatzeko, inguruan ditugun kontsumo-alternatibak aztertuko ditugu positiboan kontsumitzeko.



Batxilergoa,
Lanbide
Heziketa eta
Unibertsitatea



ECOZINE

ECOZINE ZINEMA ETA INGURUMENE- KO JAIALDIAREN GAZTEEN ATALA

Era askotako gaiak

Ecozine Zinema eta Ingurumeneko Jaialdiaren Gazteen Atala **22** webgunean deskribatzen da.

OHARRA: Lehentasuna dute Iruñeko ikas-
tetxeek



Batxilergoa,
Lanbide
Heziketa eta
Unibertsitatea



ONLINEKO
JARDUERA

MUNDUTIK ZURE ETXERA, ZURE ETXETIK MUNDURA

Zinema, kontsumoa eta hondakinak

Iraupena: 1-2 saio.

Sortzen ditugun hondakinei buruz gogoeta egi-
narazteko jarduera didaktikoa.
Miniaturazko zinema erabiliko dugu hezkuntza-
eta eraldatze-tresna gisa.

Esteka jarduerara:

Mundutik zure etxera, zure etxetik mundura



22/

Ecozine Zinema Eta Ingurumeneko Jaialdiaren Gazteen Atala

Era askotako gaiak

Nori zuzendua: Bigarren Hezkuntza, Batxilergo, Lanbide Heziketa eta Unibertsitatea, Iruñeko ikastetxeek lehentasuna izanen dutelarik.

Zer da? Ecozinek argitaratu gabeko film laburrez gozatzeko aukera eskaintzen die ikasleei, parte hartzen duten hezkuntza-etapetarako egokiak baitira. Atal honen helburua da gure azturek duten eraginaren inguruan informatzea eta sentsibilizatzea, eta ulertzea irtenbideak gure esku daudela. Saioetan ingurumen-hezitzaileek ere parte hartuko dute, eta solasaldi labur bat dinamizatuko dute ikasleekin. Proposamen gehienak animaziozkoak dira, jatorrizko bertsioan, azpтитuluekin, eta ikasgelan lantzeko didaktika-baliabideak dituzte lagungarri. Ikusle Gazteen Sarian botoa eman dezakete emanaldira joaten direnek.

Jaialdiari buruzko informazioa webgune honetan ere kontsulta daiteke: <http://festivalecozine.es>

Nola parte hartu? Saioak doan dira, eta aurretik ize-na eman behar da.

2022an, apirilaren 11n, 12an eta 13an izanen dira, goizez. Unean-unean osasun-egoera nolakoa den, saioak presentzialak izanen dira Iturramako Civivox zentroan (Ezkirotz kalea, 24) edo onlineko metodologiara joko da.

Erreserbak 948 420 984 telefonoan egin daitezke.



Dibertsitate Funtzionaleko Taldeak



JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

SENDABIDE NATURALEN LANTEGIA

Baliabide naturalak

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Gure inguruko landareek duten baliario ekologikoaz ohartzea eta haiekin egin ditzakegun sendagai batzuen berri izatea.

Nola egingen dugu?: Dinamika baten bitartez sendabeklar batzuk ezagutuko ditugu: haien ezaugarriak eta haiekin lor daitezkeen produktuak. Amaitzeko, poltsatxo sendagarriak egingen ditugu.



Dibertsitate Funtzionaleko Taldeak



JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN


PAPERA BIZIBERRITU

Hondakinak

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Baliabideak begirunez erabiltzeak eta hondakinak zuzen kudeatzeak duten garrantziari erreparatzea.

Nola egingen dugu?: Dinamika baten bidez, urrezko hiru arauak birpasatuko ditugu eta lantegi praktiko bat egingen dugu paper birziklatua sortzeko.



Dibertsitate Funtzionaleko Taldeak



JARDUERA GIDATUA MUSEOAN
EDO KANPOALDEAN

ZENTZUME- NAK NATU- RAN

Zentzumenak eta bioaniztasuna

Iraupena: 1,5 ordu.

Zer lortu nahi dugu?: Zentzumenen bidez Nafarroako naturara hurbiltzea.

Nola egingen dugu?: Ohikoak eta ez horren ohikoak diren elementu naturaletan barnako zentzumen-ibilbide bat partekatuko dugu.

Maleta ibiltariak

Zer dira? Material ibiltariak baliabide-sortak dira (neurgailuak, curriculumak aplikatzeko fitxak, etab.), askotariko gaiei buruzkoak eta hezkuntza-maila desberdinetarako egokituak.

Nola hartu parte? Maleta ibiltariak aurretik erreserbatuko dira, eta ikastetxeei aldi baterako utziko zaizkie, aldiaren iraupena zehaztuko delarik ikastetxe batean zenbat taldek erabiliko duten eta horren arabera. Erreserbak 948420984 telefonoan egin daitezke.



MALETA
IBILTARIAK

BARATZE- SASKIA

Eskola-baratzea

Zer dauka? Jolas tematikoak, liburuak, hainbat hazi-fitxa irudidunei loturik- eta jarduera-gida didaktiko bat irakasleendako.

Zer landuko dugu? Saskiak baratzera hurbiltzeko bidea emanen du era ludiko, dibertigarri eta esperimentalean. Baliabide hau bereziki erabilgarria eta osagarria da baratzea duten ikastetxeetarako.

Hezkuntza-etapa: Haur eta Lehen Hezkuntza.



MALETA
IBILTARIAK

ZARATEN KONTRAKO MALETA

Zarata eta kutsadura akustikoa

Zer dauka? Ikasgelan lantzeko moduko gida didaktiko bat, eta harekin batera beste elementu batzuk, hala nola sonometroak, dezibel-semaforoak eta abar, zaratarekin eta haren inguruko arazoekin esperimentatzeko.

Zer landuko dugu? Ekipamendu honen bitartez soinua neurtzen ahalko dugu, zarataren presentzia baloratzeko eta curriculumean gelako giroa hobetzeko moduak lantzeko, jarduera-proposamen baten bidez.

Hezkuntza-etapa: Lehen Hezkuntza.



MALETA
IBILTARIAK

ENERGIAREN MALETA

Energía

Zer dauka? Elektrizitate kontsumoa neurtzeko gailuak, Natural Battery jokoak, garraio-panelak, gaiari buruzko liburuak eta irakasle-gida bat, jardueren eskaintza didaktikoarekin.

Zer landuko dugu? Maleta honek aukera ematen digu ikasgelan hainbat gai lantzeko, hala nola energia-iturriak, oharkabeko kontsumoa, energia-aurrezkia, energia erabiltzearen ondorioak, energia-mendekotasuna...

Hezkuntza-etapa: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak.



MALETA
IBILTARIAK


URAREN MALETA

Ura

Zer dauka? Irakasle-gida bat, Fauna acuática de los ríos de Pamplona liburua, prismatikoak, iragazkiak, lupak, termometroak eta errektiboak O_2 , NO_3 eta PH-a neurtzeko.

Zer landuko dugu? Maletak bidea ematen du ikasleekin batera aztertzeko zein den ibai-ekosistema baten egoera (uren kalitatea, guneko biodibertsitatea, gizakien eragina...).

Hezkuntza-etapa: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak eta Bigarren Hezkuntza.



MALETA
IBILTARIAK

ENERGIA- TRANSIZIOAREN MALETA

Klima-aldaketa eta energia-trantsizioa

Zer dauka? Elektrizitate-kontsumoa neurtzeko hiru gailu, luxometro bat, infragorritzko termometro bat, lau garraio-panel, luzagarri bat, Cambio climático liburua eta bi irakasle-gida jardueren eskaintza didaktikoarekin.

Zer landuko dugu? Motxila honen bidez, energia-trantsizioan eta klima-aldaketaren kontrako borrokan giltzarriak diren eguneroko zenbait esparrutan lan egingen dugu: energiaren erabilera etxetan, energia-eraginkortasuna, elikadura, mugikortasuna eta abar.

Hezkuntza-etapa: Bigarren Hezkuntza.

Onlineko bestelako baliabideak

Onlineko baliabide hauek unitate didaktiko batzuk dira, hainbat hezkuntza-mailetarako egoituak, ingurumenaren inguruko hainbat gai sakon jorrazteko aukera ematen dutenak.

Unitate didaktiko bakoitzean jarduera pedagogiko batzuk proposatzen dira ikasleekin garatzeko. Proposatutako jarduerak modu desberdinetan jorra daitezke: zein bere aldetik, etapa bakoitzeko jarduerak osatuz, edo hainbat ikas-turtetan barna eginez, ikasleek edukiak modu progresiboan bereganatu eta gaiaren irudi global bat osa dezaten.



UNITATE DIDAKTIKOA



Onlineko bestelako baliabideak

IKASGELATIK LURRERA

Eskola-baratzea


Hezkuntza-etapa: Haur eta Lehen Hezkuntza

Unitate didaktiko honen helburua da eskola-baratzea gune gisa erabiltzea ikasgelan esperimentatu eta curriculumean txertatzeko.

Unitate didaktikorako sarrera:
Ikasgelatik lurrera

BERRIA!

BERRIA!



UNITATE DIDAKTIKOA



ONLINEKO BESTELAKO BALIABIDEAK

URA, HIRIA ETA BIZITZA

Ekosistema urtarak

Hezkuntza-etapa: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak eta Bigarren Hezkuntza.

Ekosistema urtarak ezagutu, aztertu eta esperimentatzeko unitate didaktikoa.

Unitate didaktikorako sarrera:
Ura, hiria eta bizitza

GRUPO DE ACCIÓN CONTRA EL DESPILFARRO ENERGÉTICO

UNITATE DIDAKTIKOA



ONLINEKO BESTELAKO BALIABIDEAK

ENERGIA XAHUT- ZEAREN KON- TRAKO EKINTZA


Energia eta klima-aldaketa

Hezkuntza-etapa: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak eta Bigarren Hezkuntza.

Gamifikazio-tresna, energia eta klima-aldaketa jolas eta erronken bidez lantzeko.

Tresnarako sarbidea:
Energia xahutzearen kontrako ekintza

BERRIA!



UNITATE DIDAKTIKOA



ONLINEKO BESTELAKO BALIABIDEAK

PLASTIKOA ETA OZEANOAK

Plastikoak eta kutsadura

Hezkuntza-etapa: DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Irakaskuntza Unibertsitarioa.

Plastikoen arazoaren jatorria, horien eragina eta alternatibak lantzeko unitate didaktikoa.

Unitate didaktikorako sarrera:
Plastikoa eta ozeanoak

BERRIA!



UNITATE DIDAKTIKOA



ONLINEKO BESTELAKO BALIABIDEAK

INGURUMEN-LARRIALDIA ETA AUKERA

Ingurumen-krisia

Hezkuntza-etapa: DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Irakaskuntza Unibertsitarioa.

Unitate didaktiko honek aukera ematen du ingurumen-krisia aldaketarako aukera gisa ikusteko.

Unitate didaktikorako sarrera:
Ingurumen-larrialdia eta -aukera



BALIABIDE OSAGARRIAK

MUSEOA ZEUREGANATU!

Zer da? Ingurumenari buruzko gai bati lotutako proiektu bat ikastetxetik harago ezagutarazteko interesa duten ikastetxeek Ingurumen Hezkuntzako Museoaren instalazioak erabiltzen ahalko dituzte harrera-toki gisara, bai eta Museoaren hedapen-bitartekoez baliatu ere, edozein ekimen, lan, erakusketa, hitzaldi eta abarretarako.

Hona erabilgarri dauden instalazioak: hitzaldi-areto bat, ikasgelak eta bilera-gelak eta erakusketa-areto bat, non askotariko erakusketak egin daitezkeen (artistikoak, informatiboak eta abar). Edukiera eta erabile-ra-baldintzak une bakoitzeko osasun-egoeraren arabera izanen dira.

Nola hartu parte? Ingurumen Hezkuntzako Lantaldearengana jo behar da 948 42 09 84 telefonora deituta 08:00etatik 15:00etara.

ETAPA GUZTIAK





ETAPA GUZTIAK



BALIABIDE OSAGARRIAK

BISITAK ERAKUSKETA IRAUNKORRERA ETA ALDI BATERAKOETARA

Zer landuko dugu? Erakusketa iraunkorrean askotariko ingurumen-baliabideak ikus ditzakegu, horiek nola erabiltzen ditugun eta gure esku dauden irtenbideak hiri bizigarria lortzen laguntzeko. Museora iristen diren aldi baterako erakusketek, berriz, aukera ematen digute gaurkotasuna duten ingurumen-gaie-tan sakontzeko. Ez galdu aukera eta eskuratu programazioa 948 420 984 telefonora deituta, edo gure posta-helbidera idatzita: educacionambiental@pamplona.es

JASANGARRITASUNA LANTZEN ELKARREKIN

2021-2022ko ESKOLA-KANPAINA



T. 948 420 984

www.educacionambiental.pamplona.es

Goizez, asteartetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara. **Arratsaldez**, asteartetik ostegunera, 18:00etatik 20:00etara.

 facebook.com/museo.educacionambiental

 twitter.com/MuseoEAPamplona

 instagram.com/MuseoEAPamplona

Errotazarko k., z.g. - 31014